

**EBAZPENA, 2018ko apirilaren 12koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendariarena; haren bidez, unibertsitate publiko eta pribatuen zentroen egiaztapen instituzionalerako Protokoloa (Unibasqeko Aholku Batzordeak 2018ko apirilaren 11n onartua) ematen da argitara.**

## **UNIBERTSITATE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ZENTROEN EGIAZTAPEN INSTITUZIONALERAKO PROTOKOLOA**

### **AURKIBIDEA**

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA .....	1
2. EGIAZTAPEN INSTITUZIONALA LORTZEKO BETEKIZUNAK.....	2
3. EGIAZTAPEN INSTITUZIONALA LORTZEKO PROZEDURA .....	3

### **1. ERREFERENTZIA ESPARRUA**

Unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzen dituen maiatzaren 29ko 420/2015 Dekretuak, unibertsitate publiko eta pribatuen zentroen egiaztapen instituzionalaren figura sartzen du unibertsitate-ikasketa ofizialen antolaketa ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan arautzen den unibertsitate-titulu ofizialen egiaztapen-ereduarekiko alternatiba gisa. 14. artikuluan, aipatu Errege Dekretuak egiaztapen instituzionalaren eskaerari, hori lortzeko unibertsitate-zentroek bete behar dituzten betekizunei, eta 5 urtekoa izango dela ezarri den haren indarraldiari buruzko guztia arautzen du. Era berean, egiaztapen instituzionala berritzeko epea eta prozedura arautzen ditu; Unibertsitate Kontseiluak emandako lehen egiaztapen-ebazpenaren, edota ondorengoan, egunetik zenbatzen hasi eta bost urte igaro baino lehen berritu behar da egiaztapen instituzionala.

Maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuak sartutako urriaren 29ko 1393/2015 Errege Dekretuaren 27 ter artikulua honako hau ezartzen du:

- Beren zentroek egiaztapen instituzionala lortu duten unibertsitateek, euren efektuei eusten dieten bitartean, irakasten dituzten titulazio ofizialen egiaztapena berritu ahal izango dute 27 bis artikuluan aurreikusitako prozeduraren pean jarri behar izan gabe.
- Egiaztatutako zentroari dagozkion unibertsitatearen titulazio ofizial guztiek Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan egiaztapena berritzeko data gisa Unibertsitateen Kontseiluaren egiaztapen instituzionalari buruzko ebazpenari dagokiona jarriko dute.

Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiak, unibertsitate publiko eta pribatuen zentroen egiaztapen instituzionalerako prozedurari buruzko hainbat alderdi zehaztu eta argitzeko xedez, 2018ko martxoaren 7ko Ebazpenaren bitartez egiaztapen instituzionalerako prozedura horri buruzko jarraibideak argitaratu zituen.

Indarrean dagoen araudi hori kontuan izanik, baita E4 Taldeak (European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA), European Students' Union (ESU), European University Association (EUA) eta European Association of Institutions in Higher Education (EURASHE) entitateek) Education International (EI), BUSINESSEUROPE eta European Quality Assurance Register of Higher Education (EQAR) entitateekin batera landutako Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan kalitatea bermatzeko irizpide eta jarraibideak ere, Agentziaren Aholku Batzordeak, 2018ko apirilaren 11ko bilkuran protokolo hau onartu zuen, Euskal Unibertsitate Sistemako (EUS) zentroen egiaztapen instituzionalerako prozedura ezartzeko helburuarekin.

Beste unibertsitate batzuen kasuan, Unibertsitatearen eta Agentziaren artean egingo den eta ebaluazio hori kontuan hartu eta garatuko duen hitzarmen baten esparruan aplikatu ahal izango da Protokolo hau.

## 2. EGIAZTAPEN INSTITUZIONALA LORTZEKO BETEKIZUNAK

Egiaztapen instituzionala lortzeko, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate-zentroek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 27 bis artikuluan aurreikusita dagoen prozedura orokorraren arabera irakasten dituzten graduko eta masterreko titulu ofizialetatik gutxienez ere erdiaren hasierako egiaztapena berritu izana. Hori betetzeko, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2018ko martxoaren 7ko Ebazpenaren bitartez argitaratutako jarraibideetan adierazten den bezala, beharrezkoa izango da gutxienez ere **Graduko unibertsitate-titulu ofizialen erdiaren** eta, gutxienez ere, **Masterreko unibertsitate-titulu ofizialen erdiaren** egiaztapena berritzea.

Era berean, iraungitzeko deklaraturik ez dauden eta eskaeraren datan modu efektiboan irakasten ari diren Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan erregistratutako Graduko eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizial guztiak konputatuko dira betekizun hori betetzeko.

**Unibertsitate arteko titulu bateratuen** kasuan, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan eskatzaile gisa agertzen den Unibertsitatearen zentroan bakarrik konputatuko dira.

Titulu bat unibertsitate bereko hainbat zentrotan (propioak nahiz atxikiak) irakasten denean, inplikaturako edozein zentroren egiaztapen instituzionala lortzeko, aipatu tituluak, aldezturik, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 27 bis artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz egiaztapenaren berrikuntza lortu beharko du.

b) **Bere kalitatea bermatzeko barne-sistemaren egiaztapena** edukitzea, ikasleei eskaintzen zaien prestakuntzaren etengabeko hobekuntzara orientatua, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren I. eranskinetik 9. puntuan ezarritakoaren arabera, eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan Kalitatea ziurtatzeko irizpideekin eta jarraibideekin bat etorritik (ESG). Horri lotuta, egiaztatutako sistemak Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiaren Batzorde Delegatuak 2017ko azaroaren 21ean egindako bilkuran ezarri zituen errekerimenduak bete beharko ditu. Edozein kasutan, beren sistemaren egiaztapena AUDIT programaren pean kreditatuta duten zentroek betekizun horiek betetzen dituzte.

### 3. EGIAZTAPEN INSTITUZIONALA LORTZEKO PROZEDURA

#### 3.1. Eskaera Unibasqen jasotzea

Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateek beren zentroen egiaztapen instituzionala Unibasqi eskatuko diote.

Honako datu hauek adieraziko dira eskaeran:

- Eskaera egin duen unibertsitatea.
- Arduraduna, legezko ordezkaria eta eskatzailea.
- Zein zentroren egiaztapena eskatzen den: kodea eta izena, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan erregistratutako datuekin bat etorritz.
- 1.a) betekizunaren egiaztapena:
  - ✓ Egiaztatzeko eskatzen den zentroan eskaeraren datan irakasten ari diren Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizial guztien zerrenda, bertan adieraziz horietako bakoitzaren izena, kodea eta egoera, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan erregistratutako datuekin bat etorritz.
  - ✓ Errektorearen ziurtagiria, eskaeran adierazitako tituluak eskaera egin den datan modu efektiboan irakasten ari direla adierazten duena.
- 1.b) betekizunaren egiaztapena:
  - ✓ Egiaztatzeko eskatzen den zentroaren kalitatea bermatzeko barne-sistemaren (KBBS) ezarpenaren egiaztapena.

Deustuko Unibertsitatearen kasuan, Eliza Katolikoaren unibertsitateen zentroen egiaztapen instituzionalerako betekizunen arabera, bere zentroen egiaztapen instituzionala Unibertsitateen Kontseiluari eskatuko dio 420/2015 Errege Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarriari jarraikiz. Unibertsitateen Kontseiluak eskaera hori Unibasqera bidaliko du, txostena egin dezan.

#### 3.2. Unibasqek aurkeztu diren datuak egiaztatzea

Unibasqek aurkeztu diren datuak egiaztatuko ditu, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan erregistratutako datuekin konparatuz.

Aurkeztutako dokumentazioa osorik egongo ez balitz edo konpon daitezkeen hutsuneak edukiko balitu, unibertsitateari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epearen barruan zuzen dezala hutsunea edo aurkez ditzala dagozkion dokumentuak; orobat, ohar hau egingo dio, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

### **3.3. Unibasqen txostena**

Unibasqek Unibertsitate Kontseiluarentzat loteslea izango den ebaluazio-txosten bat egingo du, eta aldekoa edo aurkakoa izango da. Txosten hori nahitaez bete beharrekoa izango da eta prozeduraren ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea eten ahal izango du, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikularen 1. puntuko d letran aurreikusitako terminoetan. Hala eginez gero, Unibasqek unibertsitateari jakinaraziko dio epe hori eten egin dela, unibertsitatearen eskaeraren erregistro-datatik konputatuko dena. Jakinarazpen hori espedienteari gaineratuko zaio. Epe hori ez bada eteten ebaluazio-organoak bi hilabeteko gehieneko epea izango du txostena egiteko, eskaeraren erregistro-datatik zenbatzen hasita.

Unibasqek txostena Unibertsitate Kontseilura bidaliko du, eskaeraren datuekin eta unibertsitateak aurkeztutako dokumentazioarekin batera, bidalketa-inprimaki baten edo horretarako gaitutako web-zerbitzu baten bitartez. Unibertsitateari txosten hori bidali dela jakinaraziko zaio. Jakinarazpen horrek, prozeduraren ebazpena erabaki eta jakinarazteko epea eten egin den kasuetan, unibertsitateari egindako aipatu etenduraren komunikazio izaera izango du.

### **3.4. Unibertsitate Kontseiluaren ebazpena**

Ebaluazio-organoaren txostena jaso ondoren, Unibertsitate Kontseiluak dagokion ebazpena emango du hiru hilabete igaro baino lehen, unibertsitatearen eskaeraren erregistro-datatik zenbatzen hasita. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari, autonomia-erkidegoari, unibertsitate eskatzaileari eta ebaluazio-organoari jakinaraziko zaie ebazpen hori.

Adierazitako epean esanbidezko ebazpenik ez badago, eskaera onartutzat hartuko da.

Ebazpena baieztatzailea edo ezeztatzailea izan daiteke. Ebazpen horren aurka Unibertsitateak errekurtoa aurkeztu ahal izango du Unibertsitate Kontseiluaren presidentziaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita. Prozedura hori urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 25. artikuluko 9. puntuan eta ondorengoetan ezarritako prozeduraren arabera gauzatuko da.

Erreklamazioa izapidetzea onartzen bada, horretarako izendatuko den eta ezesteko ebazpenera bideratu duen ebaluazioan parte hartu ez duten adituek osatuko duten batzordeak baloratuko du. Batzorde horrek egiaztapen instituzionalari buruzko espedientea aztertuko du ezarrita dauden bermeak babesteko, eta ebazpena berretsi edo, aldiz, erreklamazioa onartu eta Unibasqera bidaliko du, modu zehatzean adieraziz berrikusi beharreko ebaluazioaren alderdiak, erreklamazioa aurkeztu zen datatik kontatzen hasita hiru hilabeteko gehieneko epean.

Erreklamazioaren azterketak espedientean bilduta dagoen dokumentazioa hartuko du oinarritzat eskusiboki, eta beraz ebaluazio-prozesuan aurkeztutakoaz bestelako informazio gehigarririk ez da kontuan izango, Unibasqek hasiera batean aurkeztu zen informazioari buruz eskatu dituen balizko argibideak salbu.

Ebaluazio-organoak Unibertsitate Kontseiluak adierazitako alderdiak aztertuko ditu eta dagokion txostena bidaliko du hilabeteko gehieneko epean. Txostena jaso ondoren, Unibertsitate Kontseiluak behin betiko ebazpena emango du bi hilabeteko epearen barruan, eta administrazio-bidea amaituko du eta unibertsitateari, dagokion autonomia-erkidegoari, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari eta dagokion ebaluazio-organoari jakinaraziko zaie. Adierazitako epean esanbidezko ebazpenik ez badago, erreklamazioa ezetsizat hartuko da.

Unibertsitate Kontseiluak aldeko ebazpena ematen badu, egiaztatutako zentroa Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan erregistratuko da. Egiaztatutako zentroari dagozkion Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizial guztiek, ebazpen honen 1a) atalean ezarritakoaren arabera, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan egiaztapena berritzeko data gisa Unibertsitateen Kontseiluaren egiaztapen instituzionalari buruzko ebazpenari dagokiona jarriko dute. Irizpide berdina aplikatuko zaie unibertsitate berdinen hainbat zentrotan irakasten diren Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialei eta, hala dagokionean, titulu bateratuei.

Unibertsitate Kontseiluak aurkako ebazpena ematen badu, unibertsitateak bere unibertsitate-titulu ofizialen egiaztapena berritzeko eskatu beharko du urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 27 bis artikularekin bat etorriz, 24.2 artikuluan ezarritako epeen barruan.

Gasteiz, 2018ko apirilaren 12an.

Eva Ferreira García  
Unibasq-eko zuzendaria